

Informazio

Agerkaria

248

2016ko
martxo
marzo
2016

Boletín

Informativo

ILUSTRE COLEGIO DE
ABOGADOS DEL
SEÑORÍO DE BIZKAIA



BIZKAIA JAURERRIKO
ABOKATUEN BAZKUN
OHORETSUA



DE PRÁCTICA JURÍDICA / PRAKTIKA JURIDIKORAKO ESKOLA
"PEDRO IBARRECHE"



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya



I CONGRESO de la ABOGACÍA DE BIZKAIA

BIZKAIKO LEGELARIEN I. KONGRESUA

Bilbao, 10 y 11 de Marzo de 2016

Bilbon, 2016ko Martxoaren 10 eta 11



EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN AROA. 5/2015 LEGEA

Gontzal Aizpurua. Abogado. Vocal de la Junta de la AVD

“El que avanza creando algo nuevo lo hace como un remero, avanzando hacia delante, pero rema de espaldas, mirando hacia atrás, hacia el pasado, hacia lo existente para poder reinventar sus claves». Jorge Oteiza.

“...atzer a begira, aurrera eginez, arraunlariek bezala...”



Atzera begira aurrera eginez, sustrai, funts eta helburu erki-deak dituzten euskal lurraldeetako foru zuzenbideak Euskal Zuzenbide Zibil bateratuan bilakatuz etorkizunean berpitz daitezten.

Atzera begira aurrera eginez, erro eta printzipio juridiko amankomunetan oinarritutako lege berria, lurralde historikoen arteko kohesiorako baliabide eta nortasun edo identitate erkidearen baieztapenerako tresna izan dadin. Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik.

Atzera begira aurrera eginez, indargabetutako legearen (Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko 3/1992 Legea) eguneroko aplikazio praktikoak azaldu zituen gabeziak eta gatazkak konpontzen saiatzeko (hutsuneak bete, akatsak zuzendu, funtzionaltasun ezak eta inkoherentziak ezabatu), eta legedi zatiketak (bost oinordetza sistema!¹) eragiten zituen bereizketak, desberdintasunak eta bidegabekeriak saihesteko.

Atzera begira aurrera eginez..., gure zuzenbide zibila egungo errealitateara egokitze, herritarren eskari edo demandei erantzuna emateko; ondasunak aukeran xedatu edo erabiltzeko askatasunean sakontzeko -gehiegizko senipartea motelduz, tronkalitateari ondorioztatutako gehiegikeriak leunduz-, komisario edo ahalordearen ahalmenak zabaltzeko, Bizkaiko dualtasun juridikoaren ondorioak txikitze...

Atzera begira aurrera eginez herritarrentzat onargarri, erabilgarri eta onuragarri izan daitezkeen erakunde juridikoak mantenduz eta lurralde osora hedatuz -batzuk bizirik irautearen arrazoi bakarra ezin delako izan iraganarekiko edo ohiturarekiko begirunea edo sentiberatasuna-; eskualde aniztasuna aitortzen betiere, orokorrean aplika daitezkeen erakundeekin batera, toki edo herrialde bakoitzean oso errotuta dauden erakunde, lege edo ohiturak mantenduz².

Atzera begira aurrera eginez, gure zuzenbidearen inspiratzaile izan den askatasun zibilaren printzipioa eta arauen izaera “esku-emaileak”³ teoriatik praktikara jauzi egin dezan.

Atzera begira aurrera eginez, Konstituzioak eta Estatutuak aurreikusten dituzten eskumenak modu irekian interpretatu eta gauzatu⁴. Gure zuzenbidearen iturriak eta prin-

¹ Bizkaiko forudunentzat –Laudio eta Aramaio- Bizkaiko zuzenbide zibila, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren 3/1992 Legean araututakoa. Bizkaitar forugabeentzat, Kode Zibila, tronkalitateari loturiko eskubide eta betebeharrak 3/1992 Legearen arabera (23. eta 25 art. bestek beste) ñabartuta. Gipuzkoako baserriaren gaineko oinordetza sistema (3/1999 Legea) gipuzkoarrentzat, Kode Zibila. Arabako Aiara haranerako, testamentua egiteko askatasun osoa. Arabarrentzat, Kode Zibila.

² Foru komunikazioa eta tronkalitatea Bizkaian; “Testamentua egiteko askatasuna” Aiara haranean; baserriaren gaineko berezitasunak Gipuzkoan.

³ Bizkaiko Foru Berria (1526) “...que habían de uso y costumbre y establecían por ley ... “...son más de alvedrío que de sotileza y rigor de derecho...”

⁴ Konstituzioaren 149.1.8 eta Estatutuaren 10.5 artikulua ahalbidetzen duten gure zuzenbide zibilaren aldatze eta garatzeak, -eta bere eraginpeko lurralde eremua finkatzea-, Konstituzio Auzitegiaren 88/1993 eta 156/1993 epaien, eta “erakunde lotuen” eta “printzipio berriemaileen” teorien arabera egin daitezten.

tzipio eratzailak finkatuz, izan dezaketen garapenari atea zabalduz, unean uneko beharriari eta gizarte eskariei erantzuteko, eta arautu gabeko eremuetara hedatzeko.

Euskal Zuzenbide Zibilarren Batzordea aurreikusten du lege berriak, ikerketak sustatu eta lege aldaketak proposatzea xedea duena.⁵

Eta atzera begira aurrera eginez sozialki bidezkoagoa izan behar duen zuzenbidea eratzeko, jabetza eskubidearen kontzeptio edo sustrai solidarioa aldarrikatuz, interes partikularren gainetik familia eta gizartearen interesak eta pertsonaren duintasuna baloratzen dituen araudia garatuz. "Pertsonenganako errespetua eta begirunea euskal legeriaren oinarri dira".

Baina aurrera eta alboetara begira....

[Zeintzuk dira legearen berrikuntza garrantzitsuenak? Eta zeintzuk dira lege berriaren eta indargabetutakoaren artean sortuko diren gatazka edo auziak, indarraldiari dagokionez?](#)

1.- Euskal auzotasun zibila

Euskal Zuzenbide Zibilarren Lege berria Euskal Autonomia Erkidego osoan aplikatzeko, ezinbestekoa zen euskal auzotasun zibila eratzeko.⁶

Lege pertsonala eratortzen duen auzotasun zibila, aplikagarria den zuzenbide erkide edo berezia, eta lurraldearteko lege-gatazkak konpontzeko eta finkatzeko lotura puntua dugu. (Europar Batasuneko 650/2012 Erregelamenduan araututako ñabardurekin).

Euskal auzotasun zibil hori⁷ guztiz bateragarria da tokian tokiko auzotasunarekin, erakunde juridiko berezi batzuk (tronkalitatea, foru komunikazioa, ondasunak askatasun osoz erabiltzeko aukera...) aplikatzeko erabiliko den kohesio puntua.

5/2015 Legearen VII. xedapen iragankorraren arabera, berau indarrean sartzen denetik, Euskal Autonomia Erkidegoan auzotasuna dutenek (arabarrek, bizkaitar fodurrun edo forugabeek, aiararrek, gipuzkoarrek) euskal auzotasun zibila eskuratuko dute zuzen-zunenean.

2.- Seniparte eta oinordetza sistema bakarra eta bateratua Euskal Autonomia Erkidego osorako. Lege zibil bakarra

Senipartedunak:

-Seme-alabak (eta ondorengoak), eta alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea

Seniparteak.- Ondorengoentzat: Orain: 1/3. Lehen: bizkaitar forudunentzat -Laudio eta Aramaio-: 4/5. Arabar, gipuzkoar eta bizkaitar forugabeentzat: 2/3.

-Aurrekoentzat. Orain: ezer ez. Seniparte agertzen da. Lehen: 1/2

5/2015 Legea indarrean sartu arte 5 oinordetza sistema egon dira EAEn. Lege zatiketak zekartzan bereizketak eta desberdintasunak gairatuz eta saihesteko asmoarekin, eta garapenaren jomuga ahalik eta askatasun sakonena lortzea delarik, erkide osorako seniparte bakarra eta bateratua ezartzen du legeak (Aiarako askatasun osoa eta Bizkaiko tronkalitatea norabide ezberdineko ñabardurekin). Askatasuna helburu, eta askatasuna medio.

-Seniparte kolektiboa. Ez dago seniparte hertsirik. Kausatzaileak askatasun osoz bana ditzake (testamentu, dohaintza, edota oinordetza itunaren bitartez) derrigorrezko oinordetza osatzen duten ondasunak senipartedunen artean, bakarra (edo batzuk) aukeratuz eta besteak baztertuz. Baztertzea esanbidez edo isilbidez egin daiteke. Preterizioa baztertzearekin parekatzen da.

-Alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotearen seniparte (gozamina) eta jaraunspenaren gaineko eskubideak. -Ondorengoekin batera agertuz gero: ondasunen erdiaren (1/2) gozamina. Lehen, Kode Zibilarrekin, (gipuzkoar, bizkaitar forugabe eta arabarrentzat) -orokorrean- heren baten (1/3) gozamina -hobekuntza herena-. 3/1992 Legearekin: ondorengoekin eta aurrekoekin: erdiaren gozamina.

- Ondorengorik izan ezean: 2/3. Lehen, aurrekoekin: 3/1992 Legearekin eta Kode Zibilarrekin: 1/2. Aurrekorik gabe: 2/3.

Seniparteaz gain, **biztantzeko eskubidea** izango du, ezkontzari edo izatezko bikoteari dagokion etxebizitzan.⁸

- Bi legeen arteko gatazkak

Auzotasun eta seniparte berriekin sortu daitezke **aldien arteko gatazkak**. **Zer gertatzen da legea aldatu orduko egindako testamentuekin? Zein legek arautzen du oinordetza?**

Euskal auzotasun zibila zuzen-zunenean eskuratzen badute EAEn auzotasuna zutenek eta, Kode Zibilarren 9.8 artikulua arabera, kausatzaileak heriotza unean duen auzotasun zibilarri dagokion legeak arautzen badu heriotzaren ondoriozko oinordetza,

Zein egoeratan geratzen dira lege berria indarrean jarri aurretik (2015.10.03) arabar, bizkaitar eta gipuzkoarrek egiletsitako testamentuak (indarreko legeriaren arabera egindakoak) testamentugilea Euskal Zuzenbide Zibilarren 5/2015 Legea indarrean jarri ostean hiltzen denean?

Lehendabizi, testamentuak baliozkoa izan behar du. Bizkaiko hiribilduetan, eta dualtasun juridikoaren ondorioz, -zuzenbide erkide eta foru zuzenbide zibilarren ezarpen

⁵ Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak hasiera eman dio Batzordearen estatutuak onartzeko dekretu proiektua egiteko prozedurari.

⁶ 2/2003 Legea, izatezko bikoteak arautzen dituenak, eta 7/2015 Legea, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzkoa, lotura puntua ere apagai dute, hain zuzen, euskal auzotasun zibila.

⁷ Historian lehen aldiz, EAeko "auzotar" guztiak izango dute auzotasun bera, eta araudi edo lege zibil bera.

⁸ Betiere alargun dirauen artean, ezkonduen antzeko bizimodurik egiten ez duen artean, ezkontzatik kanpoko seme edo alabaren bat ez duen artean edo izatezko beste bikote bat eratzen ez duen artean. Testamentugileak beren beregi xedatutakoa salbu.

eremuen mugen mugikortasun edo fluktuazioa lehenik, zehaztasunik eza gerora, eta orokorrean, dualtasun juridikoa egotearen ezjakintasunak-, badira kausatzailearen auzotasun zibilari ez zegokion legeari jarraiki egiletsitako testamentuak, salbuespenak izanik ere. Kasu horietan, eta gatazka mobilekin gertatzen ez den bezala, testamentua deuzesa edo baliogabea izango da. Gatazka mobilen kasuetan -auzotasunari dagokion legearen arabera testamentua egin eta beste auzotasun bat eskuratuta hiltzea-, testamentua baliozkoa izango da beharrezko seniparte doikuntzei kalterik egin gabe.

Testamentua balioduna izanik, zelan konponduko dira aipatutako aldi arteko gatazkak?

5/2015 Legearen lehen xedapen iragankorrak dioenez, lege berriaren eta indargabetzen duenaren artean sortzen diren aldi arteko gatazkak konpontzeko, aplikatuko dira Kode Zibilararen xedapen iragankorretatik atarikoak, lehenengoa, bigarrena, hirugarrena, laugarrena eta hamabigarrena. Edozein kasutan, legearen ondoriozko aldaketek ezin diete kalterik egin aurreko legeriaren arabera eskuratutako eskubideei.

Eta hori nola aplikatzen da auzi edo gatazkak konpontzerakoan?

Aipatutako Kode Zibilaren 9.8. artikulua arabera, kausatzaileak heriotzaren unean duen auzotasun zibilari dagokion legeak arautuko du bere oinordetza. Eta Kode Zibilaren XII. xedapen iragankorraren arabera ere, lege berberak -heriotzaren unean indarrean dagoena- arautuko ditu jarauntsiaren gaineko eskubideak, baina legea indarrean sartu aurretik egindako testamentuaren xedapenak beteko dira lege berriak ahalbidetzen duen neurrian.⁹

Beraz, eta KZren XII. xedapen iragankorraren eta 9.8. artikulua arabera -eta 5/2015 Legea indarrean sartzen denean zuzen-zuzenean eskuratuko denez euskal auzotasun zibila-, auzotasun horri dagokion legeak arautuko du arabar, bizkaitar eta gipuzkoarren oinordetza, baina, ahal den neurrian, kausatzaileak testamentuaren bidez adierazitako borondatea errespetatu behar da.

-Borondate hori argi eta garbi balego (seniparte, araudi edo banaketa zehatza aipatzen delako, besteak beste, testamentuan). berau errespetatu beharko da, betiere 5/2015 Lege berriak arautzen dituen seniparteak -eta jarauspeneren gaineko beste eskubideak- errespetatuz.

5/2015 Legeak, Kode Zibilak edota 3/1992 Legeak araututako seniparteak nabarmen murriztu dituztenez -kausatzailearen askatasuna areagotzeko-, alargunaren eta bizirik dirauen izatezko bikotekidearen salbuespenekin -eta tronkalitatearen hedadura ere-, printzipioz ez da egongo arazorik tesamentuko xedapenak betetzeko.

Nolanahi ere, goian aipatutako alargunaren edota bizirik dirauen izatezko bikotekidearen alde 5/2015 Legeak es-

treinakoz arautzen duen biztantze eskubidea eta seniparte zabalagoa errespetatu beharko dira, ezinbestekoak diren doikuntzak -banakako egokitzeak- eginez.¹⁰

-Arazoa edo auzia sor daiteke testamentuaren edota testamentugilearen borondatea argi ez dagoenean edota zalantzan jartzen denean.

Zein izan zitekeen kausatzailearen borondatea? Zein izango da kasu hauetan bete beharreko legea? Testamentua egin zenean indarrean zegoena edo aplikagarria zena (Kode Zibila edo 3/1992 Legea) edo testamentugilearen heriotzaren unekoa (5/2015 Legea) ?

Zeintzuk dira errespetatu beharreko seniparteak? Kode Zibilekoak edo 3/1992 Legeak araututakoak? Edo 5/2015 Legeak arautzen dituenak?

Kasuistika zabala izan daiteke.

Esan dezakegu arau orokor bat aplikatu daitekeela:

Hau da, testamentua egiterakoan indarrean zegoen araudiak ezartzen zuena errespetatu behar da, ustez kausatzailearen borondatea indarrean zegoen legean araututakoarekin bat zeterrela, betiere alargunari -edo bizirik dirauen bikotekideari- aitortzen zaizkion seniparte eta eskubide berriak -biztantze eskubidea- errespetatuz eta hortara egokituz jarauspenera.

Lege zibilek testamentua aldatzeko aitortzen duten askatasun osoa kontuan hartuz, ezin da uste testamentugileak aldatuko zuenik (eta senipartedunei indarrean zegoen legearekin zegokien senipartea baino gutxiago utzi) aldatu ez badu.¹¹

Baina zalantzarako -eta auzi eta gatazketarako- tartea egon daiteke.

Kontuan hartuz senipartea euskal lege zibilarekin duen izaera edo natura (seniparte kolektiboa, "pars valoris", hau da, kreditu eskubidea) eta kausatzailearen heriotzarekin edo delazioarekin sortzen den eskubidea dela esan dezakegunez, testamentugilea hiltzen denean indarrean dagoen 5/2005 Lege berriaren araututakoa aplikatu daiteke, besteak beste, seniparteak finkatzeko?

3.- Legezko oinordetzan

Testamenturik gabeko oinordetzan, oinorde izateko ordena edo hurrenkera aldatu egin da. Lehenik, seme-alabak eta horien ondorengoak; eta ondorengorik izan ezean, alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotea izango da oinordeko, gorako lerrokoen aurretik.

4 -Alargunari edo izatezko bikotekideari dagozkien seniparte edota biztantze eskubideak azkentzea.

Kode Zibilaren arabera, oinordetza eskubiderik ez du izango -ez senipartean ezta legezko oinordetzan ere- legez edo

⁹ Esan beharra dago nazioarteko gatazketarako indargabetuta dagoela Kode Zibilaren 9.8 artikulua (ez "ad intra" gatazketarako). Europar Batasuneko 650/2012 Erregelamenduaren arabera, oinordetza ez du arautuko auzotasun zibiletik eratorritako legeak, egoitza eratorritakoak baizik.

¹⁰ Gozamen eskubidea, ondoregoekin batera balego, herenetik ondasunen erdira igo da -Kode Zibila-; aurrekoekin batera balego, erditik bi herenera.

¹¹ Auzitegi Gorena (1997.12.29), Bizkaiko Probintzia Auzitegia (2015.12.1), DGRN (2003.02.26, 1998.11.26).



egitatez banaturik dagoen alargunak (KZren 834. artikulua).

3/1992 Legearekin, dibortziatutako alargunak edo berari egozteko moduko arrazoiagatik banatutakoak ez zuen eskubiderik derrigorrezko oinordetzan (jurisprudentiaren arabera, ezta legezkoan ere).

5/2015 Legearen arabera, alargunaren senipartea azkenduko da -edo ez du eskubiderik izango- (ezta biztantzeko eskubiderik) banatuta badago, baina banantze hori epai irmoan adierazita egon behar da, edo elkarrekin ados jarrita erabaki eta modu sinesgarrian jasota.

Beraz, gerta daiteke izatez banandurik egotea -adostasunez edo adostasunik gabe-, eta epai irmorik gabe, edota adostasunez baina modu sinesgarrian jaso gabe, eta jarauspeneraino gaineko eskubideak izatea?

5.- Erantzukizuna jarauspeneren zamengatik.

Jaraunsearen erantzukizuna “intra-vires” izango da, hau da, jaraunseak jaraunsiaren bidez eskuratutako ondasunen balioaren neurrian izango du erantzukizuna kausatzaileraren betebeharren gain.

Horrekin batera, legeak banatze eskubidea edo onura ezar-

tzen du jarauntsiko hartzekodun eta legatu hartzaileentzako.

6.- Komisario bidezko oinordetza. Testamentu ahalordea.

Testamentu forma bat baino delazio forma bat den oinordetza antolatzeke eta alarguna babesteko mendeetan zehar -Bizkaian batez ere- erabili izan den tresna eta aukera. 5/2015 Legearekin EAE osora hedatzen da.

- Berrikuntzen artean: komisarioa alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea denean, (alkarpoderoso) jarauntsiko ondarearen ordezkari, administratzaile eta gozamenduna izango da, eta izaera horri eutsiko dio baita ahalordea erabili eta gero ere¹². Lehen bezala, ahalordea egikaritzeko epea bizitza osorako izan daiteke.

-Gaur egungo jarauntsiek osatzen duten ondasun eta finantza produktuen kudeaketa egokia eskatzen duen erantzun azkarra ahalbidetzeko, jarauntsiko ondasunak edo eskubideak xedatzeko aukera izango du komisarioak -alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea denean- kasu zehatz batzuetan.¹³

-Bestalde, komisarioak bere buruari adjudikatu ahal izango dizkio kausatzaileak berari esleitu dizkion ondasunak bai

¹² 3/1992 Legearekin, ahalordeak ez zeraman “ex lege” gozamina, ezkontzaren ondasunen araudia foru komunikazioa ez zenean baino (edota xedapen iragankorren arabera, 1992. urteko legearen aurretik egiletsitakoak).

¹³ Baldin eta ahalorde-emaileak horretarako baimena eman badio, edo jarauntsiko betebeharrei, zamei eta zorrei aurre egiteko baimena eman badio edo berak horri egoki baderitza batzuk besteen ordezkari izateko. Ondasun higiezinekin, enprekin eta ustiategi ekonomikoekin, balio higigarriekin edo objektu baliotsuak kostu bidez xedatzeko, nahitaezkoa izango da jarduteko gaitasun osoa duten senipartedunetatik edozeinek baimena ematea.

eta testamenturik gabeko oinordetzan edo testamentu-ahalorea egikaritu ezean berari egokituko litzaizkiokeen ondasunak ere.

-Komisarioak ezin izango du oinordekoen izendapena eta ondasunen adjudikazioa atzeratu, baina gerta daiteke nahitaezko oinordekoen edo tronkalekoen eskubideak saiheste-ko tresna bilakatzea.

.-Aldi arteko gatazkak:

Zelan arautzen da lege berria indarrean sartu aurretik hildako kausatzailearen oinordetza, testamentu ahalordea egiletsi bazuen¹⁴? Poderea egikaritzen denean indarrean dagoen legea edo kausatzailea hil zenean indarrean zegoena aplikatuko da bere jarauspeneren gaineko eskubideak arautzeko?

5/2015 Legearen V. xedapen iragankorrak dioenez, Kode Zibilaren 831. artikulua itzalpean eta 3/1992 Legearen 13. artikulua itzalpean emandako xedatze-egintzak guztiz baliozkoak izango dira. Baliozkoak omen ez ziren xedapenak baliozkotzeko atzera-eraginezko ondorioak dituen xedapen horrek eman dezake gako.

Kode Zibilaren 9.8 artikulua eta XII. eta II. xedapen iragankorren arabera, oinordetza arautu beharko lukeen legea kausatzailea hil zenean indarrean zegoen auzotasunari zegokiona izango da. Beraz, bizkaitar forudunentzat, 3/1992 Legea, eta arabar, bizkaitar forugabe eta gipuzkoarrentzat, Kode Zibila.

Baina 5/2015 Legean 17. artikulua daukagu¹⁵, eta ospe handiko iritzien arabera, artikulua horren interpretazioa ez dator bat aipatutako arau orokorrekin.

Horren arabera, delazioa eta oinordetza irekiko dira komisarioak ahalordea egikaritzen edo erabiltzen duenean, eta une horretan indarrean dagoen legeari jarriki arautuko da oinordetza. Beraz, errespetatu beharreko oinordetza sistema eta seniparteak, ahalordea erabiltzen denean indarrean dagoen lege berriak (5/2015 Legeak) arautzen dituenak izango dira.

Interpretazio horren ondorioak: nahiz eta kausatzailearen heriotza 5/2015 Legea indarrean jarri aurretik gertatu, bere oinordetza lege horren xedapenen arabera –ahalorea egikaritzen den momentuan indarrean dagoena- arautuko da (ondorengo senipartea -1/3-; aurreko seniparterik ez; alargunaren senipartea eta biztantzeko eskubidea...), betiere ahalordean bertan (lege berriarekin “prebentziozko” testamentua aldatzeko debekua desagertu da) agindu-

takoa errespetatuz.

Komisarioaren “autoadjudikazio” eskubidearekin batera (bere buruari esleitu ahal izango dizkio jarauspeneren bi heren, besteak beste), 5/2015 Legearen III. xedapen iragankorren arabera, berau indarrean jarri aurretik emandako testamentu ahalordeei atzera eraginez aplikatuko zaizkie arau berriaren xedatutakoa epe, administrazio, ordezkaritza eta xedapen egintzei buruz (gozamina ez du aipatzen, 3/1992 Legea indarrean jarri aurreko ahalordeek izango duten arren¹⁶).

Baina aipatutako interpretazioak ez du Kode Zibilaren 13. artikulua eta horren gaineko Konstituzio Auziegiko doktrina urratzen? Kode Zibilaren atariko titulua xedapenak legeen ondoreak eta legeen aplikaziorako erregela orokorrak zehazten dituen neurrian, Espainia osoan aplikatuko dira. Eta esan bezala, 9.8 artikulua arabera (XII. XI), heriotzaren unean indarrean dagoen auzotasunak eratorritako legeak arautuko du oinordetza.

7.- Tronkalitatea

5/2015 Legeak, askatasunarentzako mugapenen artean kokatzen du familia eta onibarren arteko lotura berezia den tronkalitatea. Bizkaian sustrai sakonak dituen jabetzaren izaera kolektibo edo familiakoa islatzen duen erakundeak -teorian interes partikularrei gailentzen zaiona, solidaritatean eta funtzio sozialean oinarritzen dena-, gero eta kritikatuagoa dugu, eta desagertzearen aldeko ahotsak gero eta ozenagoak eta ugariagoak dira. Erraza da tronkalitatea arbuizatzea, eta ez da hau lekurik egokiena tronkalitatearen gaur egungo zentzuari eta balizko erabilgarritasun eta onuragarritasunari buruz luzatzeko, baina mereziko luke.

Lege berriak tronkalitatea mantentzen du gaur egunera arte aplikatu izan den lur eremuan (Bizkaiko lur lauan –hiribilduetako gunen forudunetan-, Laudion eta Aramaion¹⁷), eta 3/1992 Legeak eragiten zituen gehiegikeriak leuntzen ditu, arinduz edo zuzenean desagerraraziz.

Berrikuntzak:

-Tronkaleko familatik kanpokoen mesederako gauzatzen diren ondasun tronkalen dohainezko xedatze egintzak (*inter vivos edo mortis causa*) ez dira erabat deusezak izango (3/1992 Legearekin deusezak ziren eta deuseztasun akzioa preskriba ezina), deuseztagarriak baino. Tronkaleko senideak 4 urteko epea izango du akzioa egikaritzeko eskualdaketa jabetza erregistroan inskribatzen denetik edota berreranganaketaren berri duenetik.

¹⁴ Bizkaitar forudun eta forugabeek egiletsitako poderea edota kode zibilaren 831. artikulua arabera emandakoa.

¹⁵ 17. artikulua.– Oinordetza eta delazioa.

1.– Pertsona baten eskubideak eta betebeharrak haren oinordekoei eskualdatzen zaizkie heriotza-unean bertan, lege honen xedapenekin bat etorri oinordetza-itunean ezarritakoa salbu.

2.– Delazioa gertatuko da, noiz eta kausatzailearen heriotza-unean, eta non eta kausatzaile horren azken bizilekuari dagokion tokian, edo, halakorik izan ezean, heriotzari dagokion tokian.

Hildakoak testamentu-ahalorea egiletsita badauka, oinordetza irekiko da, ahalorde horrek ukitzen dituen ondasunei dagokienez, komisarioak ahalordea erabiltzen duen unean, edo, bestela, lege honek aipatu arrazoietatik edozeinen ondorioz ahalordea azkentzen den unean.

¹⁶ Lege berriaren IV. xedapen iragankorren arabera, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea indarrean jarri aurretik egiletsitako testamentu-ahaloreetan, alguna komisario izendatzeak berarekin ekarriko du alargun horri bizi arteko gozamina eratxikitzea, eta gozamen hori ez da azkenduko ahalordea erabiltzeagatik.

¹⁷ 2015eko martxoaren 26an Bizkako Foru Aldundiak forudunak ez ziren lurraldeen kartografia argitaratu zuen bere webgunean.

-Ondorengoak ez dira tronkaleko senideak izango beren gurasoek tronkaleko senideengandik kanpo eskuratu dituzten ondasun, onibar edo higiezinetik; hauek ez dira tronkalekoak bihurtuko ondorengo bati eskualdatzen ez zaizkion bitartean (3/1992 Legea, 1959eko Konpilazioa eta 1526eko Foru Berriarekin ez bezala).

-Foru saka egikaritzeko eta lehenespenez eskuratzeko eskubidea dutenen tronkaleko senideen "kopurua" hirugarren gradura arte zabaltzen da. Lehenespena erregistroko hirugarrengotzari ere gailentzen zaio.

-Aldi arteko gatazkak.

-Zer gertatzen da 5/2015 Legea indarrean sartu aurretik tronkaleko senideak ez direnen mesederako dohainezko (inter vivos edo mortis causa) eskualdaketein? Erabat deusezak dira edo soilik deuseztagarriak? Kode Zibilaren IV. xedapen iragankorraren arabera, legea indarrean jarri baino lehen sorturiko akzio eta eskubideak egikaritu gabe badaude, horiek indarrean iraungo dute, baina egikaritzari eta iraupenari dagokionez, lege berrian xedatutakoaren menpe geratzen dira. Beraz, 4 urteko epean -legea indarrean sartzen denetik- egikaritu beharko da deuseztatze akzioa.

-Eta 5/2015 Legea indarrean jarri orduko gurasoek erositako onibarren dohainezko besterenganaketekin? Lege berriarekin tronkaleko senidetan edo izaera galdu duten ondorengoek eskualdaketa baliogabetzeko eskubidea izango dute? Erantzuna Kode Zibilaren IV. xedapen iragankorraren arabera.

-Tronkalitatea, Europar Batasuneko 650/2012 oinordetzari buruzko Erregelamendua eta oinordetzari aplikatu beharreko lege bakarraren printzipioa.

Oinordetzaren batasun printzipioak¹⁸ eta pertsonalitate printzipioak urratu edo salbuesten dituen lurraldetasunari lotuta dagoen erakunde juridikoak -tronkalitatea- ba al du

bizitzetik Europar Batasuneko araudiarekin?, hau da, kausatzailearen egoitzari (eta ez auzotasun zibilari, *professio iuris* egikaritu ezean) dagokion legea -bat eta bakarra- oinordetza arautuko duela agintzen duen europar erregelamenduarekin tronkalitatea bizirik iraun dezake?

Bizkaitar batek Sevilla edo Munich-en ezartzen badu bere egoitza, tronkalitatek datorzkion betebeharrak saihestu ditzake oinordetza egoitzari dagokion legea baino ez delako arautzen?

Europar Batasuneko 650/2012 Erregelamenduaren 38. eta 30. artikuluen arabera, tronkalitatek eratorritako betebeharrak errespetatu beharko dira Europako nazioarteko eta estatuko eskualdearteko lege gatazketan.¹⁹

8- Legearen beste berrikuntza batzuk

-Bizkaian araututa zeuden testamentu amankomunatuak (Gipuzkoako baserriaren gaineko oinordetzan ere erabiltzen zana) eta hilburukoa, EAE osora hedatzen dira.

-Oinordetza itunak²⁰. Berrikuntzen artean, oinordetza itunen bitartez, jarauntsi oso baten edo zati baten gaineko oinordetza eskubideei uko egiteko aukera arautzen da, jarauntsi horren kausatzailea bizirik dagoen bitartean. Halaber, xedatu ahal dira hirugarren baten jarauntsiaren gaineko oinordetza eskubideak, betiere hirugarren horren adostasunarekin.

-Izatezko bikoteen araubide ekonomikoa eta ondarezkoa -ezer arautu ezean-, ondasunak banatzea izango da.

-Bidezorrek preskripzioaren bidez irabazteko eskubidea EAE osora hedatzen da, eta landak ixteko eskubidea eta gizabanakoek bertatik igarotzeko eskubidea ere arautzen ditu legeak.

Aipatutakoan eta aipatu gabe geratu direnen gainean hitz egiteko parada izango dugu. Arraunean hasi gara. ●



¹⁸ Auzitegi Gorenak, 2014.4.28 eta 2010.3.11 epaietan, besteak beste, printzipio orokorraren salbuespenak onartzen ditu.

¹⁹ 650/2012 Erregelamendua ez ditu indargabetzen Espainia estatu plurinazionalan eta antzekoetan eskualdearteko lege gatazkak konpontzeko dauden arauak.

²⁰ Arabako Foru Aldundiak 2016ko urtarrilaren 22an emandako kontsulta loteslea. Ondasun bakarra unean bertan eskualdatu daiteke *mortis causa* dohaintzaren bitartez.